



Euskal Herriko Garapen Kontseiluko zuzendaritza batzordeko kideei

Jaun-andereak, agur

Otsailaren 1eko bilkuran, Euskal Herriko Garapen Kontseiluko zuzendaritza batzordeak Euskal Herriko Garapen kontseiluak « G7ko balorizazio komitean» parte hartuko duenez erabakiko du.

« G7 EZ ! Euskal Herritik beste mundu bat eraikitzen » Euskal Herriko Plataformaren izenean¹, eskari honi ezetz erantzutea eskatzen dizuegu.

Iragarritako tematikek ez gaituzte engainatu behar. Aurkeztua izan zaizuen « formatu erreberituak», bistaratzen dizueten jendarte zibilaren parte hartzeak, ezin dute gertakariaren helburua gordetu, Bertrand Badie, Sciences-Po-ko irakaslea eta nazioarteko harremanetan adituak ongi laburbiltzen duena : « Mendebaldeko munduaren oligarkak direnen irudi ahal bezain ona ematea. »

Alabaina, G7ak, mendebaldeko 7 potentzia ekonomikoak elkartzen dituenak (AEB, Japonia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Kanada), hierarkia bat ezartzen du herrien artean : potentzia handikoak direnak, ideologikoki behar bezala lerrokatuak alde batetik eta besteak, baztertuak. Merkataritza askea, desarautzea eta aurrekontu austeritatea sostengatuz, G7ko estatuak desigualtasun sozialak bultzatu dituzte, azken ehun urteetan sekulan iritsi ez diren hein batera.

G7 gailurren helburua kapitalismoaren etengabeko krisiei aurre egitea izan da luzaz, munduari neoliberalismoaren koadro zurruna inposatuz. Gaur egungo premia, sistema G7ko partaideek berek azken 40 urteetan garatutako politiken ondorioetatik salbatzea da. Haatik, nazioarteko egonkortasun eza, korapilaturiko maila desberdinetako krisiak, interes kapitalisten indarrak eta arazoek sustraiak hunkitzen ez dituzten neurriak direla kausa, gailur horiek omen duten eraginkortasuna ere zalantzan emana da. Diru zama ikaragarriak xahutzen dituzten G7ko gailurrak (2018an 500 milioi dolar) komunikazio operazioak baizik ez dira.

Urtero, bere legitimitateari buruzko kritikei buru egiteko xedez, G7ak aitzinera ezartzen ditu aktualitate gaiak eta gomititzen ditu jendarte zibileko eragileak eztabaidatzera. Errealitatean G7ko buruzagiek sekulan ez dituzte hitz hartutakoak bete. Gailurren bukaerako adierazpenek xede politik zerrendatzen dituzte baina sekulan ez dira neurri konkretu eta behargarriak bilakatu: garapenari

¹ **Elkarte eta herri mugimenduak** : Amankomunak, Askapena, Association PAF! Elkartea (Pour une Alternative Féministe!), ATTAC Pays Basque, Bake Ekintza Antimilitarista, Bilgune Feminista, BIZI !, Eleak Libre, GENEPI Bayonne, Ikasle Ekintza, IpEH Antifaxista, Komite Internazionalistak, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Zutik/collectif contre les violences sexistes.

Sindikatuak: ELB, ESK, Etxalde, HIRU, LAB, STEILAS, Union Syndicale Solidaires.

Mugimendu politikoak : Aitzina, Antikapitalistak (IV. Internazionaloko kidea), EELV Pays Basque, EH Bai, EH Bildu, Ensemble Pays Basque, Ernai, Euskadiko Partidu Komunista, Ezker Anitza, Gazte Komunistak, Indar Beltza, Les Insoumis-e-s, NPA PB, Sortu.

laguntzak (Eskozia 2005), paradisu fiskalak (Irlanda 2013) edota migrante edo errefuxiatuen eskubideen alde (Italia 2017), adibideak badira gainezka.

G7a biltzen den lurraldean eta bitartean askatasun publikoak frango murriztuak dira, joan etorriak edo manifestatzeko eskubideak adibidez. Egiatzko setio egoera eta polizi okupazioa itogarria inposatzen ditu zenbat egunez (15.000 militar eta polizia aurreikusiak).

G7ak irudikatzen duen mundua sakon eta oraindik aldatu behar da. G7aren eraginkortasunean nehork ez du gehiago sinesten. Nehork ez du gehiago onartzen. Debaldeko diru publiko xahutzea da eta aterabide hoberena bere disoluzioa da. Sinesten ahal ote da benetan, aterabide onuragarriak etorriko direla alderdi honetatik ? Pentsa genezakeia segundo bakar batez zazpi buruzagi horiek, Trump buru dutela, sozial desigualtasunari buru eginen diotela, garapen desoreka uzkailliko dutela edo gizon eta emazteen arteko parekotasun eza konponduko dutela ? Norbaitek uste duia trantsizio ekologikoaren bidea irekiko dutela eta kooperazio, soiltasun eta elkartasunean oinarritutako mundua eraikitzen hasiko direla ? Pertsona kontziente eta errealista orok badaki gure planetaren arazo larriei aterabideak beste nonbait bilatu behar direla².

Beste mundu bat sortzea posible eta premiazkoa da eta eginkizun horretan Euskal Herriak bere ekarpenak egiten ditu. Azken urteotan eredu aldaketaren aldeko mobilizazioak eta egitasmoak biderkatzen ari dira : aldaketa klimatikoaren aurka, zirkulatzeko eskubidearen alde, langileen eskubideen alde, feminismitik, kultur eta hizkuntza aniztasunaren alde, gerraren kontra eta bakearen alde, autogestio proiektu anitzak....

Garapen Kontseiluari galdegina zaio G7 eta bere politika kaltegarriei berme bat ekartzea (Balorizazio komitearen izenak ontsa adierazten duen bezala). Gure ustez, nahaskeria horietan ez du deus egiterik Euskal Herriko Garapen Kontseiluak. Bere historia, gogoetak eta lana G7 eta bere munduaren kontrako zentzura doaz nagusiki.

Arrazoi guzti horiengatik 2019ko G7ren elkar aditze instantzietan parte hartzearen kontra bozkatzea galdegiten dizuegu.

Argibide gehiago behar baduzue, zuen zerbitzuko gelditzen gara eta bitartean, onar itzazue gure agurrik beroenak.

G7 EZ !

EHTik beste mundu bat sortzen
Euskal Herriko plataforma

www.g7ez.eus – info@g7ez.eus

² klima nahasmendua, ingurumenaren pozoitzea eta bioaniztasunaren murrizketa gaitza, herri eta klase sozialen arteko desberdintasunen emendatzea, gerla inperialistak, elikaturiko gatazkak eta milioika jenderen pobretzea behartutako migrazioak eta herri aberatsetako mugen itxiera, autoritarismo, erlijio fundamentalismo eta ideia arrazisten hedapena.